

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 979

*49/2017 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoak Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan duen ordezkari bat kendu eta izendatzeko dena.*

Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, atariko tituluaren II. kapituluan, interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak arautzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaiako portuak sartzan dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurraldea antolatzeko modua eta lurralde horretako interes orokorreko portuek autonomia erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako legegintzako errege dekretuak beharrezko neurriak ezartzen ditu erkidegoek portuetako agintaritzaren antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten. Izan ere, agintaritza-egitura horiek portuak artezten dituzten organoak dira.

Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikuluan 1. eta 2. paragrafoek honela diote:

«1.– Administrazio Kontseiluak honako kide hauek ditu:

(...)

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Bokalkopuru bat, 10 eta 13 artekoa. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopuru hori ezartzea, baita bokalak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, c) letran aipatu diren bokalak izendatzekoan, honako irizpide hauek errespetatuko dituzte:

a) Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkari bokal horietako hiruk eta itsas kapitainak izango dute. Bokaletako bat estatuaren abokatua izango da, eta beste bat, Estatuko Portuak Era-kunde Publikokoa.

b) Autonomia Erkidegoa lehendakariak eta lau bokalek ordezkatu dute.

c) Kanariar Uharteetan, kabilido bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gainontzeko kideen % 33ko ordezkari bat izango dute. Eraginpeko udalak bat baino gehiago badira, lehenik eta behin ordezkari bat honako hauei egokituko zaie: Portu Agintaritzak administratutako portuari/ei izena ematen dien haiei; eta gero gainontzekoei: zerbitzuguneak eragiten dion udalmugarte-azalerarekiko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen ehuneko 66a, honako hauen ordezkariari egokituta izendatuko da: merkataritza-, industria-eta nabigazio-ganberei, enpresa- eta sindikatu-erakundeei, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoei.

Bokalen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkariak duten administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek proposatuta egingo da. Estatutuko Administrazio Orokorren kasuan, Estatuko Portuak Erakunde Publikoko lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenek, lehen paragrafoko c) letran aipatzen direnek, lau urteko indarraldia izango dute. Izendapena berri ahal izango da, alde batera utzi gabe hurrengo lerroaldean ezarritakoa.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, bokal horiek ordezkariak dituzten antolakundeek, organismoek eta erakundeek hala proposatuta.

Horiek horrela, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2017ko otsailaren 21ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Ondoren zehazten den pertsona Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal-kargutik kentzea, Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak hala eskatuta:

Tomas Epalza Solano jauna.

2. artikulua.– Ondoren zehazten den pertsona Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal izendatzea, aipatzen den Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailaren ordezkaria izango baita:

Elena Moreno Zaldibar andrea.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek indarra izango du izendatutako kide berriak nor diren Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari jakinarazten zaion egunetik aurrera; dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko otsailaren 21ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.